

"Hitz-Enea" erakusketa

10.Uzt - 15.Ira

Kod. J20-19



Edizioa

2019

Jaduerara mota

Jarduera irekia

Data

10.Uzt - 15.Ira

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

ZUZENDARITZA

Pantxoa Etchegoin

Antolakuntza Batzordea

Fundación **BBVA**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Azalpena

Nor bizi izan zen Azkaineko *Zapata Churienea*izeneko etxean? Nondik dator Alduden *Erremedio* etxe baten aurrealdean dagoen izena? Kolore berekoak direa Urruñako *Etche berdea* eta Garaziko *Etxe Berdea*?

Erantzunik ez duten galdera hauek agerian nahi ditu eman Euskal kultur erakundeak ekoiztu eta [Oskar Alegria](#) zinegileak asmatu erakusketa honek.

Horretarako, artistak bidaia bat egin du Ipar Euskal Herrian gaindi, Biarritzetik Altzürüküra, Senperetik Ortzaitzera, *Bero Etchea*, *Ixilixila*, *Ttattola*, *Oren Urdinak*, *Singalantenea*...izena duten etxeak bisitatuz.

Bidaia honek, gure artean hain aberatsa den onomastika, etxeen izenak aztertzen dituen zientzian barnera eramango gaitu.

Iraganetik, euskal kulturaren, etxeek eta etxeen izenek mapa zaharrenak ahoz egiteko balio izan dute, oraindik paperezko kartografiarik ez zegoenean ere. Lanbideak (*Arotzena*), izengoitiak (*Apalena*), toponimiak (*Arrotz bidea*) etxe bati izena jartzeko beti balio izan duten adibideetako batzuk, gaur egun, hobeto edo okerrago, abstraktuagoa den toponimia batekin ordezkatzan ari dira: desioak (*Gure Nahia*), ametsak (*Ametchetan*), haizea (*Haizatua*), izarrak (*Goizeko Izarra*).

Helburuak

-

Zuzendariak



Pantxoia Etchegoin

Baxenabarreko Jatsu herrian sortua, Pantxoia Etchegoin aspaldidanik euskararen eta euskal kulturaren bultzatzailea da. Gazte-gazterik Baionako Gau eskoletan euskal kurtsoak eman ditu eta hainbat sailetan lan egin du, hala nola antzerkian, kantuan edo oraino entzun-ikus alorretan. 1990ean, iparraldeko Euskal kultur erakundearen sortzaileetarik bat izan da eta 1997az geroztik, erakunde horretako zuzendaria da.

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa